



TRIALEKO ARAUDIA

- Euskadiko Kopa - - Euskadiko Txapelketa -

2017.02.11

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua- EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAK (ETxF) antolatzen eta erregulatzen ditu Araudi honen bidez Euskadiko Kopa - TRIAL eta Euskadiko Txapelketak - TRIAL

2. Artikulua- Araudi honen aplikazio esparruan barne hartzen dira Euskadiko Kopa osatzen duten txapelketa haiek guztiak - TRIAL eta Euskadiko Txapelketak - TRIAL, Nazioarteko Egutegian (UCI) edo Nazionalean (RFEC) barne hartzen ez direnak, eta modu batean edo bestean proba horietan partaide izaten diren pertsona edo erakunde haiek guztiak. Derrigorrezkoa izanik ezagutzea eta ezinezko berriz, inolako kasutan, horien ezagutza eza alegatzea.

3. Artikulua- Euskadiko Koparen xedapen bereziak - TRIAL eta Euskadiko Txapelketak - TRIAL Araudi honen barne hartzen direnak izan ezik, txapelketak Espainiako Txirrindularitza Errege Federazioaren Araudi Teknikoetan (RFEC), eta Nazioarteko Txirrindularitza Batasuneko Txirrindularitza Kirolaren Araudian (UCI) xedatuari jarraiki garatuko dira.

4. Artikulua- Epaimahai Teknikoari, lehenengo instantzian eta ETxF-ri dagokie Araudi hau aldatzeko eta proba bakoitzaren eremu puntual batean horren aplikaziotik eta/edo interpretaziotik eratorri litezkeen salbuespen egoera edo kasu guztiak ebazteko eskubidea.

PARTAIDETZA

5. Artikulua- Euskadiko Kopako probetako - TRIAL eta Euskadiko Txapelketetako partaidetza - TRIAL Araudi honetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten UCI-rekin atxikitako Federazio batek emandako indarrean dagoen lizentzia erabilgarri duten korrikalari guztientzat zabalik dago.

Edozein kasutan, korrikalarien partaidetzak Araudi hau zorrozki betetzera inplikutzen du.

KATEGORIAK

6. Artikulua- Partaideen adinak, probaren ospakizun urtearen eta korrikalariaren jaiotza-urtearen arteko aldea kontuan hartuta erabakitzen dira.

7. Artikulua- Euskadiko Kopa - TRIAL eta Euskadiko Txapelketak - TRIAL kategorien arabera banatzen dira ondorengo moduan:

Gizonezkoak:

Kadetea: 15 edo 16 urteko korrikalariak.

Elitea: 17 urteko edo gehiagoko korrikalariak, euren lizentzietan *Junior, Sub-23, Elite, edo Master* kategoria egiaztatzen dutenak.

Superclass: UCI Sailkapeneko lehenengo 75 postuen artean dauden lasterkariak- TRIAL.

Emakumezkoak:

Kadetea: 15 edo 16 urteko korrikalariak.

Elitea: 17 urteko edo gehiagoko korrikalariak, zeinen lizentzietan *Junior, Sub-23 edo Elite* kategoria azalduko den.

8. Artikulua- ETxF-ko Trialeko Batzordea ahaldunduta dago salbuespen izaerako baimenak emateko beste kategorია batean parte hartzea eskatzen duten korrikalariarentzat, Araudi honetako 7. artikuluari jarraiki adinaren edo generoaren arabera ez den beste kasu baterako.

Euskadiko Kopan zehar - TRIAL, Euskadiko Txapelketak barne - TRIAL, korrikalari bakar batek ezin izango du bere lehenengo partaidetzarekin lotutako kategoría aldatu edo txandatu.



PROBA BAKOITZEKO INSKRIPZIOAK

9. Artikulua- Barne hartzen diren proba guztietako inskripzioa, Txapelketen Programa abian jartzeko ordua baino 1H.30 eta 30 minutu lehenago formalizatu beharko da.

Partaideak lasterketaren egun berean inskribatu ahal izango dira.

Uneko federazio lizentzia aurkeztu beharko da parte hartu ahal izateko.

KORRIKALARIEN ETA KATEGORIEN IDENTIFIKAZIOA – PLAKA ETA DORTSALA

10. Artikulua- Korrikalari bakoitzari ETxF-ko identifikazio zenbaki bat (plaka eta dortsala) esleitu eta entregatuko zaio proba baterako bere lehenengo inskripzioaren unean, bere kategoriaren arabera. Identifikazio elementu hori erabili beharko du Euskadiko Koparen proba guztietan - TRIAL eta Euskadiko Txapelketetan - TRIAL.

Kategoria	Plakaren kolorea
Gizonezkoa Kadetea	Laranja
Gizonezkoa Elitea	Gorria
Gizonezkoa Superclass	Horia
Emakumezkoa Kadetea	Urdina
Emakumezkoa Elitea	Laranja

Plaka agerian jarri beharko da eskulekuaren aurrean. Plaka eta/edo dortsala ezin dira aldatu, ez bere forma eta ez bere publizitatea. Egiten bada, partaideak 10 puntuko penalizazio osagarria jasoko du.

Epaile Arbitroak, Ordezkaritza Teknikoak edo Eremuko Epaileek eragotzi egingo diote eremuan sartzea zenbakizko dortsala edo plaka behar bezala ezarrita ez daraman partaide orori.

Galdutako edo erabilera okerreko dortsal edo plaka guztiak korrikalariak ordaindu beharko ditu, kostua 10 €koa izanik.

BIZIKLETAK

11. Artikulua- Parte hartzeko baimendutako bizikletek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- 26 hazbete bitarteko gurpilak daramatzaten bizikletak onartuko dira.
- Trialeko bizikletak funtzionamendu eraginkorreko bi balazta eramango ditu (aurreko eta atzeko gurpilak).
- Debekatuta daude koadroko, eskulekuko eta urkilako nolana hiko pitzadurak.
- Arriskua eragin dezaketen bizikletako hodiak itxi egin beharko dira (eskulekua).
- Debekatuta dago Pedaletako eta gurpiletako gehiegizko lasaiera.
- Debekatu egingo dira pedal automatikoak edo uhal bidezkoak.
- Debekatuta daude lesioak eragin ditzaketen bizikletetako nolana hiko ertz zorrotzak.
- Debekatuta dago pneumatikoak kateekin, iltzeekin edo bestelako gailuekin hornitzea.
- Babesgarri edo rockring bat erabiltzea baimentzen da.

Korrikalari bakoitzak bizikleta batekin parte hartu beharko du. Matxura konponezinaren kasuan, Ordezkaritza Teknikoak edo Epaile Arbitroak bi partaide baimendu ahal izango ditu bizikleta berdinarekin parte hartzeko.

Probako Epaile Arbitroaren, Ordezkaritza Teknikoaren edo Eremuko Epaileen irizpideari jarraiki, matxura, gabezia edo irregulartasunen bat erakusten duten bizikletek probatik kanporatuak izango dira.

Gurpil neurri ezberdinetako bizikletek kategoria berdinean sailkatuko dira.

KIROL EKIPAMENDUA

12. Artikulua- Derrigorrezkoa da hanketan (zango-babesak) eta eskuetan babesgarriak eta kaskoa erabiltzea proba osoan zehar. Kaskoaren materiala zurruna izan beharko da eta homologatua DIN 33954, Snell edo ANSI araudien arabera.

Bizkarreko babesgarriak erabiltzea gomendatzen da.



Trialeko zapatilen zorua oso biguna izan beharko da, pedalarekin eta lurzoruarekin kontaktu egokia izateko.

Une orotan, Epaile Arbitroak, Zuzendari Teknikoak edo Eremuko Epaileek kirol ekipamendua erabiltzera behartzeko ahalmena dute.

PROBETAKO OFIZIALAK ETA BERE FUNTZIOAK

13. Artikulua- Epaile Arbitroa

ETxF-ko Trialeko Batzordeak esleituko du Epaile Arbitroa. Bere funtzioak ondorengoak izango dira:

- Lizentziak egiaztatuko ditu inskripzioaren unean.
- Egiaztatuko du ofizial guztiak, medikua eta lehen sorospenak bere postuetan ezarrita egotea.
- Bere ardura izango da lasterkariak txapelketaren ezaugarriez informatzea, balizko hainbat aldaketa azpimarratuz.
- Plaka zenbakidunaren posizioa egiaztatuko du eta irteteko unean txartela partaideei entregatuko die.
- Probaren garapen guztia ikuskatzeaz arduratuko da.

14. Artikulua- Ordezkaritza Teknikoa

ETxF-ko Trialeko Batzordeak esleituko du une orotan kirol araudia eta araudi teknikoa hala nola Epaile Arbitroarekin elkarlanean eta elkarrekin adostasunean probaren segurtasunerako eta funtzionamendu egokirako egokitzat jotzen dituen aldaketak betearazteko baldintzak betetzen dituen Ordezkaritza Teknikoa.

15. Artikulua- Eremuko Epailea

ETxF-ko Trialeko Batzordeak esleituko ditu Eremuko Epaileak Euskadiko Open Txapelketetan - TRIAL eta Euskadiko Txapelketetan - TRIAL. Eremuko Epailea izango da aginterik gorena bere esparruan, une orotan ordena mantentzeaz arduratuko dena.

- Eremuko Epailea bere esparruko aginterik gorena da eta bere ardura da une orotan ordena mantentzea.
- Ahalmena izango du une orotan araudiak betearazteko eremuren barruan eta honetatik kanpo.
- Eremua aldatu dezake itzuli baten eta besteren artean, Ordezkaritza Teknikoak ontzat ematen badu.
- Soilik eremuan sartzea baimenduko die partaideei, oinez aztertzea dagokienean.
- Lasterkariari, laguntzailei eta ikusleei gogoraziko die eremuko mugetatik kanpo ezarri behar direla.
- Laguntzailei gogoraziko die ezin dutela instrukziorik eman lasterkarientzat eremua zeharkatzen ari diren bitartean.
- Partaideari Irteera emateko baimendu bakarria izango da.
- Partaideen irteera unea ezarriko du. Txartelen harrera ordena jarraituz egingo du, bata besteren azpian ezarrita.
- Partaideei abisatuko die, plaka zenbakiaren arabera, eremua zeharkatzeko presta daitezen.
- Jarraian, lasterkariari bidea emango dio eremuan sartzeko.
- Partaideek eremuan emandako denbora eta horien hutsegiteak kontrolatuko ditu.
- Ozenki eta aldi berean eskuko hatzekin adierazi beharko du penalizazio puntu bakoitza; halaber jakinaraziko dio partaideari eremua zeharkatzen amaitzeko falta zaion denbora.
- Eremua zeharkatzea amaitzean, partaide bakoitzaren puntuak idatziz jasoko ditu puntuazio txartelean eta kontrol orrietan.
- Lasterkariari eremua uztera behartuko dio hark 5 penalizazio metatzen dituenean, denboraren arabera penalizazioa barne.
- Partaide bat iragan ostean gezi, hesola edo zinta bat mugitu edo urratu egin denean, Epaileari dagokio hura ondo jartzea hurrengo partaideari deitu aurretik.
- Hutsegite bat zalantzazko arrazoia izaten denean partaidearen eta Eremuko Epailearen artean, derrigorrezkoa da alderdien arteko azalpenak adeitasuna zainduz ematea.
- Eremua une batez utzi dezake beharrezko kasuan; kasu horretan, eremuan une bateko etenaldia egingo da.
- Eremu bakoitzeko Epaile bat edo bi eta Epailearen laguntzaile bat ezarri daitezke.

16. Artikulua- Eremuko Epailearen laguntzailea

Eremuko Epaileari laguntzeaz arduratuko den pertsona da. 16 urtetik gorakoa izan beharko da.

Bere funtzioak ondorengoak izan beharko dira:



- Gogoraziko die lasterkariei, laguntzaileei eta ikusleei eremuko mugetatik kanpo ezarri behar direla.
- Partaideen irteera unea ezarriko du. Txartelen harrera ordena jarraituz egingo du, bata bestearen azpian ezarrita.
- Partaideei abisua emango die, plaka zenbakiaren arabera, eremua zeharkatzeko presta daitezten.
- Eremua zeharkatzea amaitzean, partaide bakoitzaren puntuak idatziz jasoko ditu puntuazio txartelean eta kontrol orrietan.
- Partaide bat iragan ostean gezi, hesola edo zinta bat mugitu edo hautsi egin denean, Epaileari dagokio hura ondo jartzea hurrengo partaideari deitu aurretik.
- Inoiz ez dio txartela markatuko partaide bati, hura eremuaren barruan ez badago.

PUNTUAZIO TXARTELA

17. Artikulua- Puntuazio txartela da partaideak eremu bakoitzean eskuratutako puntuak jasotzera bideratutako dokumentua.

Txartelaren koloreak adierazten du partaideak zeharkatuko duen eremuaren maila; plastikozko materiala du.

Puntuazio txartela organizazioak entregatuko dio partaide bakoitzari, itzuli bakoitzaren aurretik.

Itzuli bakoitza amaitzean, partaideak txartela itzuli egingo du organizazioak adierazitako gunean, ondorengo itzulirako txartela eskuratuz. Eremu bakoitzeko Epaileek bere eremuan eskuratutako puntuazioak idatziko dituzte.

Itzulietako bakoitzean eskuratutako puntuen baturak gehi balizko penalizazio osagarriek amaiera emaitza ekarriko dute.

Eremuko Epaileari dagokio txartelaren entrega eta jasotze jarduera; beti partaidearen aurrean egin beharko da, bestela 10 puntuko penalizazio bat ezarriko da.

Partaideak txartelaren arduradun bakarra eta eremu bakoitzean puntuazio zuzenak eskuratu izana zaindu beharko du.

Txartel hauek pertsonalak dira eta galtzen direnean (10 puntu), partaideak zuzenean beste baten bila joan beharko du. Txartel berria organizazioak osatuko du, Eremuko Epaileen kontrol-orriak direla medio.

IRTEERA

18. Artikulua- Irteera talde bakarrarekin egingo da.

Epaile Arbitroak zenbakizko plakaren posizioa egiaztatuko du eta puntuazio txartela entregatuko die.

Epaile Arbitroa arduratuko da partaideak txapelketaren ezaugarrien inguruan informatzeaz, balizko hainbat aldaketa azpimarratuz.

Irteteko unean, speakerrak emango du irteteko agindua, atzera kontaktaren bidez: 5, 4, 3, 2, 1 aurrera!

Inskribatutako partaide bat irteteko unean aurkeztu ez denean, penalizazioa izango da, minutu batekin edo minutu frakzio batekin eta bere txartela jaso egin beharko du lasterketa bulegoan.

PROBAKO DENBORAK

19. Artikulua- Txapelketaren hasiera ordua antolatzaileak erabakiko du proba bakoitzeko Araudi Berezian.

Probaren hasieran, antolatzaileak partaideei probako ordutegi guztiak (irteera denborak, probaren denbora, penalizazio denbora, itzuli kopurua eta eremu kopurua, sari banaketa, etab.) jakinaraziko dizkie, informazio-panel baten bidez.

20. Artikulua- Txapelketaren epea

Txapelketa garatzeko, 3 orduko gehieneko epea ezarriko da kategoria bakoitzerako.

21. Artikulua- Penalizazio epea

Partaideek denbora bat erantsiko diote txapelketari dagokion denbora osoari, 30 minutukoa, hori penalizazio epea izanik.



Partaideak txapelketa amaitzeko penalizazio epearen zati bat edo osotasuna erabiltzen badu, puntu batekin penalizatuko zaio erabilitako minutu bakoitza edo minutu frakzio bakoitza (30 minutu = 30 puntu).

30 minutu hauek gainditzen badira, partaidea kanporatua izango da.

Penalizazio epea hau Epaile Arbitroak edo Zuzendari Teknikoak alda dezake, partaideen % 10a baino gehiago kanporatua izan denean.

EREMUAK ETA ITZULIAK

22. Artikulua- Kategoría bakoitzak 5 eremu eta 3 itzuli osatu beharko ditu.

23. Artikulua- Eremuak

Eremuak urrats konplexuekin osatuta daude. Eremu bakoitzak gehienez bost zailtasun nagusi (oztopo) hartuko ditu barne, artifizialak edo naturalak, esaterako: harriak, ura, hondarra, eskailerak, aldapak, ezpondak, zuhaitz enborrak, hodiak edo hormigoizko egiturak, egitura metalikoak, trenbideko trabesak, bobinak, etab.

Zintarekin mugatutako eta Eremuko Epaileak kontrolatutako ibilbidea da, partaideak bizikletarekin zeharkatuko duena. Partaidea oztopo batzuen gainetik iragan beharko da, zorua ukitu gabe, gorputzeko edo bizikletako atalen batekin, pneumatikoekin izan ezik, betiere ezarritako gehieneko epea kontuan hartuta.

Batez beste 20 eta 30 metro arteko luzera izan beharko dute eta eskuleku osoaren zabalera ahalbidetuko duen tartea.

Zintarekin mugatuta daude, zoruarekiko altuera 10 eta 30 cm artekoa izanik.

Eremuaren barruan, koloreztatutako geziek maila bakoitzaren ibilbidea adierazten dute. Horiek noranzkoa edo atea adierazi dezakete:

- Noranzkoa: partaidea norantz joan behar den adierazten duen gezia.
- Atea: bi gezi elkarri begira, partaideak zeharkatu beharko duten tartea adierazten ari direnak; hauek beste maila batzuetan irudimenezko zinta baten antzekoak izaten dira.

Hobeto ulertzeko, eremu baten barruan dauden geziak eta atea zenbakizkoak izan behar dira. Sekzioko azkeneko gezia bereizteko, hari dagokion zenbakia zirkulu batekin inguratuko da.

Eremu-mugako zintak pareta bertikaltzat hartzen dira eta maila adierazteko geziak gorputzarekin soilik gainditzeko moduko balizak dira.

Kategoría bakoitzeko jauziaren altuera maximoak ondorengoak izango dira:

Maila	Urdina	Laranja	Gorria	Horia
Altuera	0,80m	1,20m	1,40m	1,80m

Eremuko Epaileak eremua aldatzeko eskubidea izango du, itzuli baten eta bestearen artean, Ordezkarí Teknikoak hori ontzat ematen duenean.

Eremuak hautatutako ordenaren arabera garatuko dira, betiere 1., 2. eta 3. itzulia errespetatzea zainduz.

Partaide bakoitzak derrigorrezko eremuak eta urratsak garatu beharko ditu, eta bere kategoriako koloreko geziekin adieraziko dira.

Zeharkatu beharreko eremuaren aurretik eremu neutro bat ezarriko da (sarrera koadroa) zeinetan eremua zeharkatuko duen partaidea soilik ezarri ahal izango den.

24. Artikulua- Itzulia

Itzuli bat esaten zaio trialara eratzen duten eremu guztien garapena osatzeari.



25. Artikulua- Eremuaren garapena

- Partaideek eremua oinez aztertu ahal izango dute, zeharkatzen hasi aurretik.
- Eremuko Epaileak edo bere laguntzaileak entregatzen zaizkion txartelak hartuko ditu eta bata bestearen azpian ezarriko ditu, iriste ordenari jarraiki, irteera ordena ezartzeko.
- Partaide bakoitzari plakaren zenbakiaren arabera abisua emango zaio, eremua zeharkatzen hasi aurretik. Eremuko Epaileak edo bere laguntzaileak jakinaraziko du hurrengo zenbakia, prestatzen joateko.
- Eremu bakoitzaren sarreran eremu neutro bat ezarriko da (sarrera koadroa) zeinetan soilik eremua zeharkatuko duen partaidearen presentzia ahalbidetuko den.
- Eremua abian jartzen da aurreko gurpilaren ardatzak sarrerako atea zeharkatzen duenean; une horretan, Eremuko Epaileak kronometroa martxan jarriko du.
- Eremuan sartzean, aurreko gurpileko ardatza sarrerako atetik irteten bada, 5 punturekin penalizatuko da.
- Partaideak oztopo bat beste baten atzetik gainditu beharko du, gainditutako oztopo baten eraginez inoiz atzera egin gabe.
- Eremua amaitzen da aurreko gurpileko ardatzak irteerako atea zeharkatzen duenean; une horretan, Epaileak kronometroa eten egingo du.
- Partaideak eremua osatu beharko du, ezarritako epean.
- Eremuan sartzean, partaideak ezin izango du sarrera errepikatu, norbaitek oztopatu badio soilik egin ahal izango du, betiere Eremuko Epailearen instrukzioak jarraituz, puntuak, eginiko denbora eta etenaldia zein eremutan gertatu den kontuan hartuta.
- Inork ezin dio instrukziorik eman lasterkariari, eremua zeharkatzen ari den bitartean (10 puntuko penalizazio osagarria).
- Epaileak ozenki eta aldi berean eskuko hatzekin adieraziko du penalizazioko puntu bakoitza.
- Partaideari jakinaraziko dio eremua amaitzeko falta zaion denbora. Partaideak denbora ezagutu nahi duenean, beti Eremuko Epaileari galdetu beharko dio.
- Eremuaren barruan matxura gertatzen denean, ahal den bezala amaitu beharko da, kanpoko inolako laguntzarik jaso gabe. Ezinezkoa izaten denean, partaideak eremua utzi egin beharko du, 5 puntuko penalizazioarekin.
- Eremua zeharkatzea amaitzean, Eremuko Epaileak edo bere laguntzaileak partaide bakoitzaren puntuak idatziz jasoko ditu puntuazio txartelean eta kontrol orrietan.
- Amaitzean, txartela jaso egin beharko da.

26. Artikulua- Zero Puntu.

Partaideei eremua hutsegiterik egin gabe zeharkatzean eskuratzea dagokien puntuazioa.

27. Artikulua- Penalizazioak: 1, 2, 3, 4 edo 5 puntu

Partaideek eremu barruan eginiko hutsegiteak 1, 2, 3, 4 edo 5 punturekin penalizatuko dira.

Eremu barruan gertatutako kontaktu oro* gorputzeko (eskuarekin izan ezik eta 5 puntu penalizatuko dira) edo bizikletako atalen batekin (pneumatikoekin izan ezik) eginikoa, puntu batekin penalizazioa da eta gehienez 5ekin. Bizikletaren mugimendua oin bat zoruan ezarrita egiten denean, bizikletaren kontaktuak onartzen dira, eskulekuarekin eginikoak izan ezik, horrek puntu baten penalizazioa ekarriko baitu.

** Marruskadura, eustea, laguntzeko asmoarekin edo gabe, Eremuko Epailearen erabakiaren arabera.*

PROBAKO SAILKAPENA

28. Artikulua- Kategoría bakoitzeko garaile aldarrikatuko da penalizazio puntu gutxien eskuratu dituen, itzuli bakoitzeko eremuetako ibilbidean eginiko hutsegiteen, denboraren balizko penalizazioen eta bestelako balizko penalizazioen batura egitean.

Berdinketaren kasuan, zero kopuru gehien eskuratu duena aldarrikatuko da garaile. Berdinketa mantentzen denean, bat gehien eskuratu dituen eta horrela hurrenez hurren.

Berdinketa erabatekoa eta soilik podioko plazetarako izaten denean, Epaile Arbitroak edo Ordezkaritza Teknikoak ezarriko dute berdinketa hausteko eremu bat. Berdinketa urratzeko eremua zeharkatu ostean berdinketa mantentzen denean, eremua garatzeko epe laburren lortu duen partaidea aldarrikatuko da garaile.

Lasterkariak 5 puntu eskuratzen badituzte, garaile aldarrikatuko da eremuaren luzera handiena zeharkatu duen hura.



Podiokoak ez diren beste lasterkari batzuen arteko berdinketaren kasuan, txapelketaren denbora osoa izango da berdinketa urratzeko erabiliko dena.

EMAITZEN ARGITALPENA

29. Artikulua- Lasterketa amaitzean, puntuen zenbaketa egitea amaitzean eta Epaille Arbitroak hori guztia ontzat ematen duenean, amaiera emaitzak argitaratuko dira informazio-panelean.

Partaideek 10 minuturekin kontatuko dute bere azterketa egiteko.

30. Artikulua- Erreklamazioak

Epaimahai teknikoko kideen egiaztapenek, txostenetan eta aktetan jasotakoek, frogaren balioa dute, aurkakoa egiaztatzen denean izan ezik.

Epaimahai Teknikoak edo bere kideetako edozeinek banaka eginiko lasterketako egoeren egiaztapenen eta txapelketa arauen aplikazioaren aurrean, ezinezkoa izango da errekurtsua aurkeztea.

PROKOKOLO JARDUERAK

31. Artikulua- Podioko plazetan sailkatutako partaideak derrigorrez kirol jantziarekin bertaratu beharko dira sarien banaketa ekitaldietara eta bestelako protokolo ekitaldietara.

Aurkeztu ezean, dagozkien sariak eta puntuak galdu egingo dituzte.

PROBA BAKOITZEKO SARIAK

32 Artikulua.- Sariak entregatuko zaizkie kategoria bakoitzeko hiru lehenengo postuetan sailkatuei.

Inskribatu guztiak sarituak izango dira bere partaidetzarengatik.

EUSKADIKO KOPA - TRIAL

EGUTEGIA

33. Artikulua- Euskadiko Kopako Egutegia osatzen duten probak – TRIAL, ETxF-ko Batzorde Teknikoak hautatuko ditu, alde zuzenetik Baldintzen Plegua betetzen duten eskaera aurkeztuak aztertu ostean.

34. Artikulua- Modu independentean puntuagarriak izango dira ETxF-ko urteko Trialeko Egutegian inskribatutako proba haiek guztiak, zeinetan Euskadiko Kopari dagokion probaren egoera egiaztatuko den - TRIAL.

35. Artikulua- Klub antolatzaileek euren data proposamenak aurkeztuko dizkiote ETxF-ri, bere Lurralde Federazioen bidez eta ETxF-ko Ohiko Batzordea ospatu aurretik. Behin-betiko Egutegia eratzeko eskubidea ETxF-ri dagokio.

36. Artikulua- Proba bat justifikatu gabeko arrazoiengatik eteten denean, Klub antolatzaileak data eta kategoria horiek lehenesteko dagokion eskubidea galduko du hurrengo urtetan.

AMAIERA SAILKAPENA

37. Artikulua- Araudi honetako 7. artikuluan adierazitako kategoria bakoitzaren Amaiera Sailkapena lasterkari bakoitzak proba puntuagarrietan eskuratutako puntuak batzean ezarriko da, eta sailkapen onena eskuratuko du puntuazio kopuru handiena lortu duen lasterkariak.

Amaiera Sailkapenean berdindutako lasterkarien berdinketa urratzeko, azkeneko proban lortutako bere sailkapena erabiliko da.

38. Artikulua- Proba bakoitzaren ondoren eta kategorietako bakoitzean, ondorengo puntuak esleituko dira:



Posizioa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	eta azkena arte
Puntuak	20	17	15	13	11	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1	1

AMAIERA SARIAK

39. Artikulua- Euskadiko Kopako Amaiera Sailkapeneko lehenengo hiru postuek - TRIAL, kategoria bakoitzekoek, sari bikainak eskuratuko dituzte.

EUSKADIKO TXAPELKETAK - TRIAL

40. Artikulua- Euskadiko Txapeldunaren tituluak - TRIAL erreserbatuta daude eskusiboki Euskadi-Nafarroako Federaziotako batekin (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) lizentzia duten lasterkarientzat eta Ipar Euskal-Herrian (Behenafarroa, Lapurdi eta/edo Zuberoa) bizi direnentzat, kasu bakoitzean nazionalitate espainiarra edo frantsesa dutenentzat; dagokien egoitza izango da bere lizentzian azaltzen dena.

Kadetea eta Junior (17 eta 18 urte):

Genero bietako lasterkariak, aurretiaz aipatutako lurralde eremuan bizi direnek eta nazionalitate espainiarra edo frantsesa ez dutenek, era berean dagozkien Euskadiko Txapeldunen tituluak eskuratzeko aukera izango dute.

Gutxienez 3 (hiru) lasterkari partaideen kopurua lortzen ez den kategoria haietan, Euskadiko Txapeldunaren tituluak eman gabe geratuko da.

EUSKADIKO TXAPELKETEN BANAKETA - TRIAL

41. Artikulua- Euskadiko Txapelketak - TRIAL kategorien arabera banatzen dira ondorengo moduan:

Gizonezkoak:

Kadetea: 15 edo 16 urteko lasterkariak.

Elitea: 17 edo urte gehiagoko lasterkariak, zeinen lizentzietan *Junior, Sub-23, Elite, edo Master* kategoria azalduko den.

Superclass: UCI Sailkapeneko lehenengo 75 postuen artean dauden lasterkariak - TRIAL.

Emakumezkoak:

Kadetea: 15 edo 16 urteko lasterkariak.

Elitea: 17 edo urte gehiagoko lasterkariak, zeinen lizentzietan *Junior, Sub-23 edo Elite* kategoria azalduko den.

PARTAIDETZA

42. Artikulua- Euskadiko Txapelketetan - TRIAL, Araudi honetako 40. artikuluan barne hartzen diren lasterkariek gainera, UCI-rekin atxikitako federazio baten bidez eskuratutako indarrean dagoen lizentziaren jabe diren haiek guztiek parte hartu ahal izango dute.

Bigarren haiek probaren sailkapenetan azalduko dira. Hala ere, EZ DUTE AUKERARIK izango Euskadiko Txapelketako tituluak bakar bat eskuratzeko.

SAIKAPENAK

43. Artikulua- Kategoria bakoitzean, araudiaren arabera xedatutako epean proba amaitzen duten lasterkari guztien sailkapen bateratu bat ezarriko da; horrela, Araudi honetako 40. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten haien artean lehenengo postuan sailkatutako lasterkaria Euskadiko Txapelduna aldarrikatuko da kategoria horretan.

44. Artikulua- Kategoriaren batean lasterkari partaideen kopurua hiruren azpitik dagoenean, lasterkari haiek adinaren arabera berehala dagokien goragoko kategoriarekin lehiatzeari ekingo diote.



Lasterkari horiek, Euskadiko Txapeldunen tituluak eskuratzeko eskatzen diren baldintza berdinekin sartu ahal izango dira, harrera kategoria horretan bere sailkapenagatik emango lirakekeen sariak eta/edo trofeoak lortzeko orduan.

- Adibidea: Elite kategoriako Txapelketan parte hartzera behartuta dagoen Kadete kategoriako lasterkari batek, probako garaile aldarrikatzen denean, Elite – Euskadiko Txapeldunaren tituluak eskuratuko du; Kadete mailako tituluak eman gabe geratuko da.

Hala ere, Euskadiko Koparen Sailkapenerako puntuak esleipenari dagokionez - TRIAL, bere lizentzian azaltzen den kategoriarekiko sailkapen independente propio baten arabera esleituko dira.

AMAIERA XEDAPENA

45. Artikulua- Euskadiko Txapelketak - TRIAL puntuagarriak izango dira Euskadiko Koparen Amaiera Sailkapen Nagusirako - TRIAL kategoria bakoitzean.

I. ERANSKINA

PENALIZAZIOEN BAREMOA

Babesgarriarekin, pedalararekin eta rockring-arekin eginiko kontaktuak:

- Babesgarriarekin edo rockring-arekin eginiko kontaktua: puntu bat.
- Pedalararekin eginiko kontaktua: puntu bat.
- Babesgarriarekin edo rockring-arekin eta pedalararekin aldi berean eginiko kontaktua: puntu bat.
- Babesgarriarekin edo rockring-arekin eta pedalararekin eginiko kontaktua, aldizkakoa edo alderantzizkoa: 2 puntu.
- Oin bat zoruan ezartzen badugu (puntu bat) eta oztopo bat gainditzen badugu eta babesgarriak edo rockring-ak, pedalarak edo bizikletaren beste atal batek (koadroa, urkila,...) oztopoa marruskatzen dutenean edota harekin eustean, ez da penalizaziotzat hartuko; baina oina kendu ostean babesgarriarekin edo rockring-arekin eta/edo pedalararekin eginiko eustea, puntu bat gehiagorekin penalizatuko da.
- Oina zoruan ezarrita edo ezarri gabe, eskulekuarekin eustean: puntu bat.

Oina zoruan ezarrita eginiko kontaktuak:

- Oina zoruan ezartzea, eremuko mugen barruan edo kanpoan: puntu bat. Oina zoruan ezartzean (puntu bat), erabateko biratzeak edota puntarekin edo orpoarekin biratzeak ez du penalizatzen.
- Oina zoruan ezartzean (puntu bat), lekualdatzea edo arrastatzea: puntu bat gehiago.
- Lohiarengatik edo bestelako elementu labaingarriengatik oina arrastatzen denean, puntu bat kontabilizatuko da hasieratik lehenengo geraldira arte. Oin hori arrastatzen jarraitzean, altxatu gabe, beste puntu batekin penalizatuko da hurrengo geraldira arte, eta horrela hurrenez hurren.
- Oina zoruan ezartzen dugunean (puntu bat) eta belaunarekin, ukondoarekin edo gorputzaren beste atal batekin eustean: puntu bat gehiago.
- Oin bat zoruan ezarrita dagoenean (puntu bat), bizikletak oztopoak ukitu ahal izango ditu penalizatu gabe, eskulekuarekin izan ezik.

Eremua zeharkatzeko ezarritako denbora-epa gainditzeagatik:

Eremuak zeharkatzeko epea 2 minutukoa izango da. Epe hori gainditzean puntu bat penalizatuko da **10** segundo edo segundo frakzio bakoitzeko; puntu hauek erantsi egingo zaizkio partaideak jadanik metatu duen kopuruari.

Denboraren araberako penalizazioaren bidez, partaideak 2 minutuak agortzen dituztenean eta eremuan inolako hutsegiterik metatu ez duenean.

- 2 min 01s-tik 2 min 10s-ra: puntu bat gehiago
- 2 min 11s-tik 2 min 20s-ra: puntu bat gehiago



- 2 min 21s-tik 2 min 30s-ra: puntu bat gehiago
- 2 min 31s-tik 2 min 40s-ra: puntu bat gehiago
- 2 min 41s-tik 2 min 50s-ra: puntu bat gehiago

Iruzurra edo 5 puntu:

Partaideak eremua utzi beharko du 5 puntuko penalizazioa jasan badu.

- 5 puntuko penalizazioa egotziko da gorputzeko edo bizikletako atal batekin eusten denean.
- Bizikleta heltzea eskulekua edo potentzia ez den beste toki batetik.
- Bi oinak zoruan aldi berean ezartzea.
- Eskua eskulekutik aldentuta erabiltzea eta oztopo baten gainean ezartzea.
- Bi oinak bizikletaren albo batean ezartzea, horietako bat zoruan ezarrita dagoenean.
- Eremua zeharkatzeko ezarritako 3 minutuko epea agortzea.
- Erortzea. Gorputzeko atal batek aldaken gainetik zoruarekin edo oztopo batekin kontaktua izatea edota zoruan edo oztopo baten gainean esertzea.
- Eremuko mugak gainetik edo azpitik gainditzea, geziak edo hesolak urratzea edo botatzea. Neurketa gunek dira gurpilen ardatza eta bizikletaren ardatz longitudinala.
- Eremuan sartzean, aurreko gurpilaren ardatzak sarbide lerroa gainditzen duenean.
- Kategoriarekin egokitzen ez den ate batetik pasatzea (sartzea edo irtetea).
- Eremua okerreko noranzkoan trazatzea.
- Ate bat gainditzean, alderantzizko noranzkoan zeharkatzea (aurkakoa adierazi ezean).
- Eremu bat zeharkatzeari uko egitea. Bost puntuko penalizazioa eskuratzeko txanda zaindu eta eremura sartu beharko da.
- Eremu barruan matxura gertatzean, ahal den moduan amaitu beharko da, bestela 5 puntuko penalizazioa egotziko da.

Penalizazio osagarriak:

Hutsegite hauek Eremuko Epailerek idatziz jasoko dituzte eta Epailere Arbitroaren edo Ordezkeri Teknikoaren aurrean aurkeztu beharko dira, sailkapenak argitaratu aurretik.

- Zeharkatu gabeko eremu bakoitzeko (gehienez 2): 10 puntu eremu bakoitzeko.
- Jarrera desegokiarekin eztabaidatzea: 10 puntu.
- Partaideak soilik eraman dezake bizikleta: 10 puntu.
- Epailere eta partaideak soilik aurkituko dira eremuaren barruan, proba garatu bitartean. 10 puntu.
- Inork ezin dio instrukziorik eman partaideri eremua zeharkatzen duen bitartean.
- Puntuazio txartela galtzea: 10 puntu.
- Eremuko Epailerekin txartela entregatzea edo jasotzea, partaidearen presentziarik gabe: 10 puntu.
- Kanpotik edonolako laguntza mota jasotzea, eremua zeharkatzen den bitartean: 10 puntu.
- Natura eta bere ingurunea ez errespetatzea: 10 puntu.
- Zenbakizko plaka eskulekuaren aurrean agerian ez eramatea: debekatuta dago horrela eremua zeharkatzea.
- Zenbakizko plakaren forma edo publizitatea aldatzea: 10 puntu.
- Irteerako minutu bateko edo minutu frakzio bateko atzerapenagatik: puntu bat.
- Lasterkariak proba amaitzeko penalizazio epearen hein bat edo osotasuna erabiltzen duenean, puntu batekin penalizatuko zaio erabilitako minutu bakoitza edo minutu frakzio bakoitza (30 minutu = 30 puntu).

Deskalifikazioa:

Hutsegite hauek eremuko epailerek idatziz jasoko dituzte eta Epailere Arbitroari edo Ordezkeri Teknikoari aurkeztu beharko zaizkio, sailkapenak argitaratu aurretik.

- Azkeneko txartela ezarritako epetik kanpo entregatzea.
- Itzuli bakoitzaren amaieran txartela ez ematea.
- Zeharkatu gabeko hiru eremu edo gehiago.
- Eremu barruan entrenatzea.
- Irteera 15 minutu baino gehiagorengatik atzeratzea.
- Eraso fisikoak.
- 30 minutuko penalizazioa gainditzea.
- Eremu bateko oztopoak eta seinaleztapenak aldatzea.
- Eremutik eremura lekualdatzea, trialeko bizikleta ez den beste nolabaiteko ibilgailu batekin.



- Ez zirkulatzea seinaleztatutako ibilbideko inter eremuetatik.
- Lasterketa bertan behera uztea, txartela entregatu gabe.
- Zaurituta parte hartzea, medikuaren edo osasun zerbitzuaren baimenik gabe.
- Kaskoa eramatearekin lotutako arauak ez errespetatzea.

Ez da penalizatzen:

- Eremuak oinez zeharkatzea, bizikletarekin sartu aurretik.
- Zinta gurpil bietako batekin zapaltzea, betiere ardatzak hura gainditzen ez duenean. Pneumatikoekin marruskatzea edo bereiztea ahalbidetzen da.
- Oina zoruan ezartzean, hau erabat biratzea ahalbidetuko da.
- Bizikleta konpontzeko eremutik kanpoko laguntza jasotzea.
- Laguntzailea eremuaren barruan egon daiteke partaidea babesteko, horrek bere emaitza eragiten ez duenean, eremuko Epailearen alde aurreko baimenarekin.

Debekatuta dago irteeran ezartzea

- Inskripzioen egiaztapenean aurkeztea, ezarritako ordutegitik kanpo.
- Uneko lizentzia ez aurkeztea.



REGLAMENTO DE TRIAL

- Copa de Euskadi - - Campeonatos de Euskadi -

11.02.2017

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- La EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA (ETx) organiza y regula mediante el presente Reglamento la Copa de Euskadi - TRIAL y los Campeonatos de Euskadi - TRIAL

Artículo 2.- El ámbito de aplicación del presente Reglamento comprende todas aquellas competiciones contenidas en la Copa de Euskadi - TRIAL y los Campeonatos de Euskadi - TRIAL, que no se encuentren incluidas en el Calendario Internacional (UCI) o Nacional (RFEC), y a todas aquellas personas o entidades que de una u otra forma participen en estas pruebas. Siendo obligatorio conocerlo, no pudiendo en ningún caso alegar ignorancia de los mismos.

Artículo 3.- A excepción de las disposiciones particulares de la Copa de Euskadi - TRIAL y los Campeonatos de Euskadi - TRIAL contenidas en el presente Reglamento, las competiciones se regirán por analogía a lo dispuesto en los Reglamentos Técnicos, de la Real Federación Española de Ciclismo (RFEC), y en el Reglamento del Deporte Ciclista, de la Unión Ciclista Internacional (UCI).

Artículo 4.- El Jurado Técnico, en primera instancia, y la ETx se reservan el derecho de modificar el presente Reglamento y de resolver cuantas situaciones o casos excepcionales pudieran derivarse de la aplicación y/o interpretación del mismo en el ámbito puntual de cada prueba.

PARTICIPACION

Artículo 5.- La participación en las pruebas comprendidas en la Copa de Euskadi - TRIAL y en los Campeonatos de Euskadi - TRIAL está abierta a todos los corredores con licencia en vigor extendida por cualquier Federación afiliada a la UCI que cumplan con los requisitos expuestos en el presente Reglamento.

En cualquier caso, la participación de los corredores implica su sometimiento al estricto cumplimiento del presente Reglamento.

CATEGORÍAS

Artículo 6.- Las edades de los participantes se determinan por la diferencia entre el año en que se celebra la prueba y el año de nacimiento del corredor.

Artículo 7.- La Copa de Euskadi - TRIAL y los Campeonatos de Euskadi - TRIAL se distribuyen por categorías de la siguiente manera:

Hombres:

